



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/26

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek euren "erabateko desadostasuna" erakutsi dabe fiskalak Altsasuko gazteentzat egin dauen eskariagaz**

Bizkaiko Batzar Nagusiek euren "erabateko desadostasuna" erakutsi dabe gaur Altsasuko zortzi gazteentzat fiskalak egin dauen eskariagaz Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean. EAJ-PNV, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek aurkeztu daben eta hiru talde horreetako ordezkarien aldeko botoakaz eta PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren kontrakoakaz onetsi dan arauz besteko proposamenaren bitartez, Bizkaiko Batzarrek "oso arduratuta dagozala" adierazo dabe gertakarien nondik norakoa ikusita, eta kasu hori "proporzino eta arrazoi falta maila onartuezinera" heldu dala azpimarratu dabe.

Aldi berean, Bizkaiko Batzar Nagusiek "bizikidetzagaz, justiziagaz eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuagaz erabateko konpromisoa" adierazo dabe, "zuzenbidean oinarritutako estatu demokratikoaren printzipioak diran neurrian, eta kasu hau inguratzan dauen proporzino faltea normalidadearen eta bizikidetzat demokratikoaren kontrakoa dala" azpimarratu dabe.

Aldeko 12 botogaz eta kontrako 4gaz onetsi dan dokumentuan, Bizkaiko Batzar Nagusiak Nafarroako Probintzia Auzitegiak adierazo dauen motibazioaren alde agertu dira. Auzitegiak esan dauenez, ez dago errazoirik gertakari horreek terrorismoa dirala esateko, eta berretsi egiten dau igazko urriaren 1ean Altsasun izandako gertakariak instruitzeko eta epaitzeko eskumena Iruñeko epaitegien esku egon beharko litzatekela.

Ekimenak bloke bitan banatu ditu Batzarrak. Alde batetik, EAJ-PNVk, Podemos Bizkaiak eta EH Bilduk, Entzutegi Nazionalak ezarri dituan kautelazko neurrien "proportzionaltasun faltea" azpimarratu dabe, gazteek urtebete baino gehiago daroezalako euren bizilekutik 400 kilometro baino gehiagora dagozan kartzelatan. Altsasuko gazteentzat eskatutako zigorrak 12,5 urtekoak (auzipetu batentzat), 50 urtekoak (6 gazterentzat) eta 62,5 urtekoak (beste pertsona batentzat) dira.

Eztabaida garratzean, PPK eta Talde Mistoak kritikau egin dabe botereen bereizketea ez errespetetea, eta "oinarri juridikorik ez daukien eretxi politikoak" emotea. "Ez daukat gaitasunik zigor eskariak neurritz kanpokoak diran ala ez jakiteko", esan dau Javier Ruiz Alderdi Popularreko bozeroaleak, eta ondoren adierazo dau Altsasun gertatutakoa "astinaldi ideologikoa" izan zala.

PSE-EE taldeak, bere aldetik, esan dau penagarria dala ekimenean, beste ezer baino lehen, guardia zibil biek eta euren bikoteek jasandako "erasoa" salatu ez izana, eta, gainera, "taberna bateko burrukea" izan zala esan izana. Talde horren eretxiz, jatorria, ETArek indarkeria amaitu zanetik 5 urte igaro diranean gizartean oraindino irauten daben "indarkeria eta gorroto aztarnetan" dago. Ekain Rico batzordekideak "zigorra eskatu dau", baina adierazo dau ez dagozala ados zabalduetako prozedura juridikoagaz, euren ustez ez zalako terrorismo ekintzea izan, "izatekotan be, gorroto ekintzea", esan dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
26/10/2017

## **Las Juntas Generales de Bizkaia muestran su "más rotunda discrepancia" con la petición fiscal para los jóvenes de Altsasu**

Las Juntas Generales de Bizkaia han mostrado hoy en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia “su más rotunda discrepancia” con la petición fiscal de prisión para los ocho jóvenes de Altsasu. A través de una proposición no de norma firmada por PNV, EH Bildu y Podemos Bizkaia, aprobada hoy con el apoyo de los representantes de estos tres grupos junteros y el rechazo de PSE-EE, PP y Mixto, la Cámara vizcaína manifiesta “una gran preocupación” por el devenir de los acontecimientos, y constatan que el caso ha llegado a un nivel de “desproporción y sinrazón inaceptables”.

Al mismo tiempo, las Juntas Generales de Bizkaia manifiestan “su firme compromiso con la convivencia, la justicia y el respeto a los derechos humanos de todas las personas como principios propios de un estado democrático de derecho, y manifiestan que la desproporción que rodea a este caso es contraria a la normalidad y convivencia democráticas”.

En el documento, aprobado por 12 votos a favor y 4 en contra, las Juntas Generales de Bizkaia manifiestan su apoyo a la motivación de la Audiencia Provincial de Navarra respecto de la no concurrencia de indicios para que los hechos sean calificados como terrorismo, y se reafirma en que la competencia para instruir y juzgar los hechos sucedidos en Altsasu el 1 de octubre del año pasado debiera corresponder a los juzgados de Pamplona.

La iniciativa ha dividido la Cámara vizcaína en dos bloques. Por un lado, PNV, Podemos Bizkaia y EH Bildu han destacado la “desproporcionalidad” de las medidas cautelares impuestas por la Audiencia Nacional, ya que los encausados llevan más de un año en cárceles situadas a más de 400 kilómetros de distancia de su lugar de residencia. Los ocho jóvenes de Altsasu se enfrentan a penas de prisión de 12,5 años (para una encausada), de 50 años (para 6 jóvenes) y de 62,5 años (para otra persona).

En el agrio debate, PP y grupo Mixto han criticado que no se respete la separación de poderes y que se viertan “opiniones políticas sin fundamento jurídico”. “No tengo capacidad para saber si las penas son desmesuradas”, ha dicho el portavoz del grupo Popular, Javier Ruiz, quien ha mantenido después que los hechos acaecidos en Altsasu fueron “un apaleamiento ideológico”.

Por su parte, el PSE-EE ha lamentado que, en la iniciativa, no se hayan repudiado primeramente las “agresiones” a dos guardias civiles y sus parejas, al tiempo que ha criticado que se consideren una “pelea de bar”. Para esta formación su origen forma parte de los “rescaldos de violencia y odio” que aún perduran en la sociedad después de 5 años sin violencia de ETA. Su juntero Ekain Rico se ha inclinado por “exigir un castigo” aunque ha recordado que “discrepan” con el procedimiento judicial abierto porque no comparten que sea un acto de terrorismo, “más bien de odio”, ha dicho.